

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Amorebieta-Etxanoko Udala**

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bereziaren deialdiaren oinarri espezifikoak, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalari dagokiona.

20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALARI DAGOKIONA

1. – Deitutako plazak

Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako 2 plazarako deialdia egiten da, txanda irekian, honela banatuta:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria, berariazko betekizunak, etab.)
2	PEOIA	HE 1 2009/10/16 2008/01/01
		OI LO 13 BO 15.225,60 €

2.– Parte hartzeko eskakizunak

2.1.– Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan oro har ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. OI azpitaldeko langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatikotasaren zenbatekoa: 6,20 €

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) apartatuan xedatutakoari dagokionez, ez da titulaziorik eskatzen da.

3.– Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1.– Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 1 hizkuntza eskakizuna betekizuna da. Euskara jakitea derrigortasun data igarota duten lanpostuen baldintza da.

Betekizun horiek oinarri orokorretako 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4.– Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira.

Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.

4.1.1.-Lehenengo ariketa: hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaila.

Amorebieta-Etxanoko Udala. Era elektronikoan izenpetutako agiria. Egiaztatzeko, begiratu <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. Documento firmado electrónicamente. Para verificar: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>
Herriko plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Tel: 94 630 00 02 - Faxa 94 630 01 65



Saila / Área Giza Baliabideak / Giza Baliabideak	
Agiria / Documento PER16S0IU	Espedientea / Expediente: AYT/3768/2022
Balidazio kodea / Código de validación 396V0I1L45662R4D18WW	
Asunto / Gaia Bases Específicas	

Test motako 40 galderako galdetegi bat erantzun beharko dute (gehi erreserbako beste 5 galdera). Hainbat erantzun aukera egongo dira. Galderak gaitegi orokorrari eta espezifikoiari buruzkoak izango dira, oinarri espezifikoa hauekiko I. Eranskinean jasotako gaiei buruzkoak hain zuzen ere.

Ariketa honetan 0-10 puntu artean lortu ahal izango dira, eta gutxienez ere 5 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko. Txarto erantzundako galderek ez dute penalizaziorik izango, eta baztertuak izango dira 5 puntu edo gehiago lortzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 6. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2- Bigarren ariketa: hautagai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzalea.

Hainbat proba praktiko egin beharko dira. Idatziz izan daitezke, zein bestelako zereginen bat izan daiteke, baina betiere oinarri espezifikoa hauekiko I. Eranskineko gaitegi espezifikoiari lotuta egongo dira.

Ariketa honetan 0-50 puntu artean lortu ahal izango dira, eta gutxienez ere 25 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko. Txarto erantzundako galderek ez dute penalizaziorik izango, eta baztertuak izango dira 25 puntu edo gehiago lortzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 6. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.3. Hirugarren proba, euskara proba, 1. Hizkuntza-eskakizuna: derrigorrezkoa eta baztertzalea izango da izangaiatzat.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Amorebieta-Etxanoko Udalari erregistro horretan egiaztatu dezan. Ofizioz egiaztapen hori egitea posiblea ez balitz, hautagaiei eskatuko zaie behar dena egiaztatzeko.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkoak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.- Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera

Amorebieta-Etxanoko Udala. Era elektronikoa izenpetutako agiria. Egiaztatzeko, begiratu <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. Documento firmado electrónicamente. Para verificar: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>
Herriko plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Tel: 94 630 00 02 - Faxa 94 630 01 65



Saila / Área Giza Baliabideak / Giza Baliabideak	
Agiria / Documento PER16S0IU	Espedientea / Expediente: AYT/3768/2022
Balidazio kodea / Código de validación 396V011L45662R4D18WW	
Asunto / Gaia Bases Específicas	

berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebatzteko dagoen gora jotzeko errekurtsioa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 6. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: **35 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

Gehienez 15 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan edo peoi kategoriako OI azpitaldean edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, egindako zerbitzuengatik 0,010 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Berriazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berriaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalan edo peoi kategoriako OI azpitaldean administrazio deitzailean egindako zerbitzuengatik, 0,012 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partziallean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 5 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.– Gidabaimen hauetakoren bat edukitzeagatik, gehienez 2 puntu:

Amorebieta-Etxanoko Udala. Era elektronikoa izenpetutako agiria. Egiaztatzeko, begiratu <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. Documento firmado electrónicamente. Para verificar: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>
Herriko plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Tel: 94 630 00 02 - Faxa 94 630 01 65



Saila / Área Giza Baliabideak / Giza Baliabideak	
Agiria / Documento PER16S0IU	Espedientea / Expediente: AYT/3768/2022
Balidazio kodea / Código de validación 396V0I1L45662R4D18WW	
Asunto / Gaia Bases Específicas	

- B motako gidabaimena: puntu 1

- B+E motako gidabaimena: 2 puntu

b.2.- Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,032 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 3 puntu.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

Izangaia azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da zerbitzu berezien azpieskalan emakumeen azpiordezkaritzarik dagoelako.

Amorebieta-Etxanoko Udala. Era elektronikoan izenpetutako agiria. Egiaztatzeko, begiratu <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. Documento firmado electrónicamente. Para verificar: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>
Herriko plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Tel: 94 630 00 02 - Faxe 94 630 01 65



Saila / Área Giza Baliabideak / Giza Baliabideak	
Agiria / Documento PER16S0IU	Espedientea / Expediente: AYT/3768/2022
Balidazio kodea / Código de validación 396V0I1L45662R4D18WW	
Asunto / Gaia Bases Específicas	

I. ERANSKINA. GAITEGIA**Orokorra:**

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. EAren eskumenak: eskusiboak, legegintza garapenekoak eta betearazpenekoak.
3. gaia: Udalerría (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, II. Titulua, 11-28 bitarteko artikulua).
4. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako. 3. eta 17. Artikuluak.

Berarizkoa:

5. gaia: Hiri altzariak. Motak eta ohiko konponketak.
6. gaia: Bide publikoan elementu mugikorrek muntatzea: aldamioak, tribunak, karteldegia, hesiak.
7. gaia: Arotzeria. Ezagutza orokorra. Eskuzko erremintak: nola erabili, garbitu, zaindu, eta egoera onean izan.
8. gaia: Igeltserotza: Kontzeptu orokorrak. Materialak, erremintak, eta hauek nola erabili.
9. gaia: Igeltserotza: Oinarrizko kontzeptuak. Trenkadak, luzituak, zarpiatuak, alikatatuak, pladurra.
10. gaia: Iturgintza: Kontzeptu orokorrak. Materialak, erremintak, eta hauek nola erabili.
11. gaia: Iturgintza: Oinarrizko kontzeptuak. Presioa, presio-altuera erlazioa, karga-galerak, txorrota sanitarioak, kontagailuak, ur-tangak.
12. gaia: Ibilgailuen mantentze-lanetarako oinarrizko mekanika.
13. gaia: Obrako makineria eta tresnak.
14. gaia: Saneamenduari buruzko kontzeptu orokorrak. Saneamendu sareak eta hustubideak. Instalazioak
15. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa. Babes pertsonala eta kolektiboa.

Amorebieta-Etxanon, 2022ko abenduaren 20an.

Jarduneko Alkatea,

Sin.: Anartz Gandiaga Zarazua

Amorebieta-Etxanoko Udala. Era elektronikoan izenpetutako agiria. Egiaztatze, begiratu <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano. Documento firmado electrónicamente. Para verificar: <https://e-udala.amorebieta-etxano.eus>
Herriko plaza, z/g 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia) Tel: 94 630 00 02 - Faxa 94 630 01 65